

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala\_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org  
20003 Donostia

## TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

2015eko urtarrilaren 15ean argitaratu zuen Donostiako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2015 urteko diru laguntzen deialdia. Deialdi horretan jasotzen dira Euskara Zerbitzuak Donostiako Euskararen Plan Orokorra (2011-2015) garatzeko edota osatzeko 2015. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak.

2015. urteko deialdian bi atal berezitu dira: bata, auzoetako plan integralak, 25.000 euroekin hornitua, eta bestea, jarduera zehatzak, 12.525,35 euroekin hornitua.

Kasu honetan, auzoetako plan integralei zuzendutako proposamena bakarrik egingo da. Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskariak aztertu eta diru laguntzen banaketa egiteko erabilitako irizpideak kontuan harturik, irabazi asmorik gabeko elkarten emakidak zehaztu dira, oinarri orokorretako III. atalean zehaztatutako prozedurari jarraiki. Horrela, izapidegileak eskaerak baloratu ondoren, Balorazio Batzardeak dagozkion txostenak egin ditu. Dokumentu honi erantsita doaz balorazio irizpideak eta entitate bakoitzari emandako puntuaketa. Espedientearen eta Balorazio Batzardearen txostenen argitan izapidegileak behin-behineko proposamenak egin ditu.

Oinarri orokorretako 9. artikuluan zehaztutakoarekin bat, behin-behineko ebazpen proposamena egin ondoren interesatuei jakinarazi eta 10 eguneko epea eman zaie egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Ez da inolako alegaziorik jaso.

Hala, Gobernu Batzarrak eskuordetzan emandako aginpidea erabili eta haxe da Kultura eta Euskarako zinegotzi ordezkari honek Gobernu Batzarrari proposatutako,

## ERABAKIA:

- 1) Ondorengo elkarteei taulan azaltzen diren diru laguntzak ematea, 2015eko urtarrilaren 15eko GAOn argitaratutako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2015 urteko diru laguntzen 8. eranskinean, Euskara Zerbitzuaren deialdiari, auzoetako plan integralei, dagozkienak.

Elkartea-Auzoa	I.F.K	Eskatutako diru kopurua	Puntuak	1. fasea	2. fasea	%70(Lehen ordainketa)	%30 (bigarren ordainketa)	Guztira
Plazara Goaz Intxaurren E.B	G20715371	7.800 €	84	1.500 €	2.807,04 €	3.014,92 €	1.292,12 €	4.307,04 €

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala\_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org  
20003 Donostia

Loiolako Erriberatako auzo elkarte	G20934295	1.500 €	64	1.500 €	0 €	1.050,00 €	450 €	1.500,00 €
Ikasbide Kultur Elkarte	G20094884	3.685 €	79	1.500 €	973,55 €	1.731,49 €	742,06 €	2.473,55 €
Bizarrain-Altza Euskara Elkarte	G20754834	7.857,74 €	80	1.500 €	2.832,76 €	3.032,93 €	1.299,83 €	4.332,76 €
Kai-harripe-Parte Zaharra	G75064451	5.010 €	47	1.125 €	1.172,94 €	1.608,56 €	689,38 €	2.297,94 €
Eltzegor-Bidebieta	G20900205	2.500 €	64	1.500 €	445,56 €	1.361,89 €	583,67 €	1.945,56 €
Añorga kultur eta kirol elkarte	G20189601	3.460 €	73	1.500 €	873,3 €	1.661,31 €	711,99 €	2.373,30 €
Sarroeta auzo elkarte-Martutene	G20403408	1.550 €	74	1.500 €	22,28 €	1.065,59 €	456,69 €	1.522,28 €
Kriseilu Bagera-Aiete	G20715918	2.950 €	72	1.500 €	646,06 €	1.502,24 €	643,82 €	2.146,06 €
Igeldo H K	G20578258	2.850 €	68	1.500 €	601,51 €	1.471,06 €	630,45 €	2.101,51 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>39.162,74 €</b>						<b>25.000 €</b>

2) Erabaki hau Udaleko Web gunean eta udal iragarki-oholean **argitaratzea**.

3) Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak **onarpena eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari** diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran. Hau da, diru laguntzaren %70 behin betiko emakida onartzen den unean bertan ordainduko da, arauzko izapideen arabera, eta gainontzeko %30a diruz lagundutako programaren edo jardueraren zuriketa egiterakoan. Zuriketa hau diru laguntzen deialdiaren 16. artikuluan jasotzen den dokumentuen bidez egin beharko da 2016ko martxoaren 31 baino lehen.


Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala\_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org  
20003 Donostia

**4) Gastua (25.000 €) 2015eko gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskara Zerbitzuko 481.01 kontu sailari egoztea.**

Donostian, 2015eko maiatzaren 12an

KULTURAKO ETA EUSKARAKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

  
Iz.: Naiara Sampedro

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

  
Iz.: Edurne Otamendi Garmendia

EUSKARA ZERBITZUKO INSTRUKZIO EGILEA

  
Iz.: Mikel Zumarraga Luzuriaga

